

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

13/2026 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea landa bideak egokitzeko laguntzen eta landa inguruneko erakundeek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuen oinarri arautzailei

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 2ko 15/2023 Foru Dekretuaren bidez, landa bideetarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta haien 2023rako deialdia onetsi ziren. Foru dekretu horren arabera, landa bideetarako 2024ko eta 2025eko laguntzen deialdia ere egin zen.

Laguntza hauen xedea da landa bideen azpiegituretako jarduketak finantzatzea, eta, berrikuntza gisa, aukera bat sartzen da, zeina baita azpiegitura horien hobekuntza funtzionalarekin eta landa inguruneko nekazaritza jardueraren garapen egokiarekin zuzenean lotutako inbertsio jakin batzuk diruz laguntzekoa.

Horiek horrela, landa bideak egokitzeko eta hobetzeko ohiko jarduketekin batera, inbertsio osagarriak ere sartzen dira. Inbertsio horiek, beren izaeragatik, zuzenean laguntzen dute nekazaritza erabilera optimizatzen eta ustiatagietako lan baldintzak hobetzen, hala nola zamalane-tarako kaiak egitea, nekazaritza produktuak biltzeko hondartzak egitea, garbiketa harguneak egitea edo bideetako sastrakak kentzeko eta bideak mantentzeko makinak eskuratzea, antzeko beste batzuen artean.

Inbertsio horiek sartu dira sektorearen eskaerei erantzun integralagoa eman behar zaielako, bide azpiegituren ikuskera mugatua gaındituz eta jarduketa eremua hedatuz haien funtzionaltasuna, irisgarritasuna eta benetako aprobeitxamendua bermatzeko ezinbestekoak diren elementu lagungarrietara.

Horretarako, diruz lagundu daitezkeen inbertsioek zuzeneko lotura izan beharko dute nekazaritza azpiegiturak erabiltzearekin eta mantentzearekin, bai eta ekoizpen jarduera hobetzearekin ere, eta ezin izango dira barnean hartu lotura hori ez duten edo nekazaritza interesarekin zerikusirik ez duten jarduerak.

Horrekin, nekazaritza ustiatagien lan baldintzak, segurtasuna eta efizientzia hobetu nahi dira, haien errentagarritasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna bultzatuz, bai eta Arabako Lurralde Historikoaren lurralde garapen orekatua lortzen lagundu ere. Gauzak horrela, administrazio publikoen ekintzan egon behar duten publikotasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen direla bermatzeko, beharrezkoa da oinarri arautzaile berriak egitea, "beste inbertsio batzuk" barne hartuko dituztenak, bai eta egungo 15/2023 Foru Dekretua argitzea ere.

Foru dekretu hau izapidetzean kontuan eduki dira administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen eta Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Horrela, azaldu ditugun aurrekarietan, behar bezala justifikatu da araudi berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduna neurritzkoa da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatu baita. Dekretua idaztean, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Lege-

gintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Kontuan hartu dira, halaber, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioaz denaz bezain-e batean, proposatzen den arauketak, bere izaera dela eta, ez dakar administrazio karga osagarririk edo alferrikakorik herritar guztientzat, ez eta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan idatzi da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea landa bideak egokitzeko laguntzen eta landa inguruneke erakundeek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko beste inbertsio batzuen oinarri arautzaileei, honekin batera doan eranskinkeko artikuluen arabera.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzailea. Oinarri arautzaile hauen aurkakoak diren xedapenak indargabetzea, eta, bereziki, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 2ko 15/2023 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

ERANSKINA

LANDA BIDEAK EGOKITZEKO LAGUNTZEN ETA LANDA INGURUNEKO ERAKUNDEEK EGINDAKO NEKAZARITZA JARDUERAK SUSTATZEKO INTERESEKO BESTE INBERTSIO BATZUEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honetan araututako laguntzen xedea da landa bideen azpiegituretako inbertsioak finantzatzea, bai eta Arabako Lurralde Historikoko eskualdeetan nekazaritza jarduera garatzeko interesgarriak diren beste inbertsio osagarri batzuk ere, besteak beste, zamalanetako kaiak, pilaketa hondartzak, garbiketa harguneak, bideetako sastrakak kentzeko makinak esku-ratzea eta nekazaritza azpiegituren hobekuntza funtzionalarekin lotutako gainerako jarduketak.

Helburua da nekazarien eta abeltzainen lan baldintzak, segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzea; nekazaritza ustategien ongizatea eta errentagarritasuna handitzea; haien ekoizpen dibertsifikazioa eta lehiakortasuna indartzea, eta lurraldearen garapen orekatua lortzen laguntzea, nekazaritza azpiegiturek hobetuz eta egokituz.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

Foru dekretu honetan jasotako laguntzen onuradun izango dira bideen titular diren toki erakundeak eta/edo dekretu honen 4. artikuluan jasotako beste inbertsio batzuk egiten dituzten erakunde publikoak, beren lurralde eremuan edo dagokien lurraldean, udalaz gaindiko erakundeak badira. Nolanahi ere, egindako inbertsioak Arabako Lurralde Historikoan kokatu beharko dira.

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak hautatzeko baldintzak

Diruz lagundu ahal izango dira foru dekretu honen 4. artikuluan deskribatutako inbertsioak, taldearen eta tipologiaren arabera.

AFArekin Bideen Erregistroan inskribatuta egon beharko dira bideak, eta, hortaz, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta hobetzeko otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan xedatutakoa bete behar dute.

Eraiki berriak diren edo lehendik dauden baina erregistro horretan ageri ez diren bideen inbertsioak diruz lagundu ahalko dira deialdian hala adierazi bada. Edonola ere, obra egin ondoren, bidea Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inskribatuta geratuko da.

Beste inbertsio batzuen kasuan, obrak edo instalazioak direnean, erakunde eskatzaileak jabetzan dituen edo haien titularraren baimena duten lursail edo lokaletan egin beharko dira.

Deialdi bakoitzean, diruz lagunduko diren inbertsioen taldea eta/edo tipologia zehaztuko dira.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Foru dekretu honetan jasotako laguntzak inbertsio hauetara bideratuko dira:

Bideen taldea.

4.1 Bide berriak eraikitzea.

4.2 Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea.

4.3 Lehendik dauden bideak konpontzea eta hobetzea.

4.4 Bideak egokitzeko eta hobetzeko jarduketak, euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteen ondorioz.

Beste inbertsio batzuen taldea.

4.5 Landa bideen mantentze, kontserbazio eta hobekuntza funtzionalerako beharrezkoak diren beste inbertsio batzuk, tipologia honen arabera:

4.5.1 Landa bideak mantentzeko makina egokiak.

4.5.2 Kontserbazioarekin edo nekazaritza erabilerarekin lotutako instalazioak.

4.5.3 Funtzionaltasun egokirako beharrezkoak diren obra osagarriak.

Aurrekoei datxezkien jardueren taldea.

4.6 Jarduketa orokorren kostuak, obra proiektua idaztearekin, obra zuzentzearekin, segurtasunaren eta osasunaren gaineko oinarrizko azterlanarekin eta beharrezkoak izan daitezkeen eta inbertsioaren proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren azterlan tekniko guztiekin lotutakoak, Nekazaritza Sailak jarduketa horiek gauzatzeko teknikaririk ez duenean edo beste arrazoi batzuegatik horixe zehazten denean.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak eta diruz lagundu ezin direnak

5.1. Diruz laguntzekoak izango dira:

5.1.1 Landa bideak eraikitzeko, egokitzeko, kontserbatzeko, konpontzeko eta hobetzeko obren jarduketak, bai eta arlo horretan egin daitezkeen beste batzuk ere.

5.1.2. Landa bideak mantentzeko makina egokiak erosteko edo kasuan kasuko zonan nekazaritza jarduera garatzeko instalazioak edo obrak egiteko inbertsioetako jarduketak.

5.1.3 Foru dekretu honen 4.6 artikuluan jasotako jarduketak, Nekazaritza Sailak gauzatu ezin dituenetan eta/edo hark hala zehazten duenean.

5.1.4 Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa), dirulaguntzaren erakunde onuradunak benetan ordaintzen duenean. Berreskuratu edo konpentsatu ahal bada, inola ere ez da joko diruz lagundu daitekeen gastutzat.

5.2. Ez dute diru laguntzarik jasoko hauek:

5.2.1 Obrak gauzatzeko beharrezkoa denean, ondasunak eta eskubideak desjabetzeko egin beharreko inbertsioaren zenbatekoa.

5.2.2 Jarduketa berbera gauzatzeko denean, 7 urteko tartean, laguntza bat ematen denetik kontatzen hasita, salbu eta ezohiko edo titularrari egotz ezin dakizkiokeen ondorioz eragindako kalteak konpontzeko denean.

5.2.3 Inbertsioak, zeinen gutziko zenbatekoa, erakunde bakoitzeko, deialdi bakoitzean ezarritako gastu diruz laguntzeko modukoaren gutxieneko muga baino txikiagoa baitute.

5.2.4 Aurreko bi kanpainetan bide jakin batean edo beste inbertsio batzuetan egindako jarduketak, baldin eta jada eman baziren eta azkenean gauzatu ez baziren, edo adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 75etik beherako gauzatzea badute, eta ez badago unitate kudeatzaileak behar bezala baliozkotutako justifikaziorik.

6. artikulua. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren zenbatekoa

Unitate kudeatzaileak zehaztuko du proiektuaren edo memoria teknikoaren egokitasuna, aurkeztutako dokumentazioak zer dioten kontuan hartuta, halakorik badago; egokitzen jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du.

Landa bideen taldearen kasuan:

Laguntzak kudeatzeko unitateak, bere eskumen teknikoak oinarri eta bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, artapen eta zaintzarako 6/1995 Foru Arauarekin, eskaeraren xede diren bideak konpontzeko behar diren obra unitateak zehaztuko ditu. Erakunde eskatzaileek aurkeztutako aurrekontuak onartu edo aldatu ahal izango ditu, bideak konpontzeko beharren, deskribatutako obra unitateen eta haien prezioaren arabera. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua onartzen ez bada edo aurkeztu ez badu, unitate kudeatzaileak dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontu bat egingo du, adierazitako irizpideei jarraituz.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua egiteko, obra unitateak eta haien prezioak Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuaren partida nagusitik hartuko dira (batzorde teknikoak onetsia).

Beste inbertsio batzuen taldearen kasuan:

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua kalkulatzeko, aurkeztutako aurrekontua hartuko da kontuan, eta organo kudeatzaileak hura aldatzeko ahalmena izango du, kontuan hartuta eskatutako inbertsiora egokitzen den, beharrezkoa den eta merkatuko prezioekin bat datorren, bai eta, hala badagokio, Nekazaritza Sailean makinerian inbertitzeko aplikatu beharreko deialdi bakoitzerako onetsitako eta indarreko modulu ekonomikoen arabera ere.

Moduluei lotuta ez dauden inbertsioetarako, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000,00 eurotik gorakoa denean (BEZa aparte), erakunde onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, inbertsioa egiteko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago hori hornitzen edo ematen duen nahikoa erakunde.

Aurkeztutako eskaintzen artetik hautaketa egiteko, efizientzia eta ekonomia irizpideak erabili behar dira. Aukeratutako eskaintza diru ekonomia aldetik onuragarriena ez bada, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

Bi jarduketa tipologietarako (bideak eta beste inbertsio batzuk).

Eskatutako inbertsioari datzekion proiektu teknikoak egiteko ordainsarien aurrekontu diruz laguntzeko modukoa ezin izango da izan aurkeztutako proiektuan aurreikusitako gauzatze materialaren kostuaren ehuneko 4 baino handiagoa. Era berean, gainerako ordainsari teknikoak gehienez 3.500,00 eurokoak izango dira.

7. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak edo jarduketak aukeratzeko irizpideak

7.1. Honako puntuazio irizpide hauek ezartzen dira, kopuru osotan, inbertsio motaren arabera:

7.1.1 Bide berriak eraikitzeko, laguntza xede diren bideen artean puntuak emango dira honako ezaugarri hauek baloratu ondoren, salbu eta deialdian beste bat zehazten bada:

– Obraren premia eta erabilgarritasuna:

- Abeltzaintza ustiategietarako sarbidea: 10 puntu.
- Errepidearen alternatiba edo herriko zeharbidea: 7 puntu.
- Lehendik dauden bideen arteko lotura: 5 puntu.

– Puntu berdinketa egonez gero, lehentasuna izango du nekazaritza azalera handiagoari zerbitzua ematen dion bideak.

7.1.2 Dekretu honetan 4.2 (egokitzapena eta kontserbazioa), 4.3 (konponketa eta hobekuntza) eta 4.4 (fenomeno naturalek eragindako kalteak) gisa identifikatutako inbertsioetarako, bide bakoitza puntuen arabera barematuko da, zein egoeratan dauden, honela, deialdian beste bat zehazten ez bada:

- Bide ibilgaitza: 50 puntu.
- Erabiltzaileentzako oso arriskutsua den bidea: 40 puntu.
- Egoera txarrean dagoen bidea: 30 puntu.
- Tarteko egoeran dagoen bidea: 20 puntu.
- Egoera onean dagoen bidea: 10 puntu.

7.1.3 “Beste inbertsio batzuk” gisa identifikatutako inbertsioetarako, oro har, honako puntuazio irizpide hauek ezartzen dira, salbu eta deialdian beste batzuk ezartzen badira.

- Toki erakunde txikia: 50 puntu.
- Udala: 40 puntu.
- Beste erakunde batzuk: 30 puntu.

7.2 Dekretu honetan, 4. artikuluko landa bideen taldeko tipologian, azpitalde bakoitzean, identifikatutako inbertsioetarako, puntu gehien lortzen dituzten inbertsioek izango dute lehentasuna. Puntu kopuru bera lortzen badute, aurrekontu handiena dutenek izango dute lehentasuna, salbu eta deialdian beste irizpide bat ezartzen bada.

4. artikuluko “beste inbertsio batzuk” tipologian definitutako inbertsioetarako, lehenetsitako taldeak zehaztutakoa izango da inbertsio bakoitzerako markatutako lehentasuna, gainerakoen aurretik.

Lehentasun bakoitzeko inbertsioen taldeari 5.1.3 artikuluko puntuazio irizpideak aplikatuko zaizkio talde bakoitzeko inbertsio bakoitzaren lehentasun ordena zehazteko, eta talde bakoitzak lehentasuna izango du hurrengoaren aurretik.

Eskaerak aurrekontuaren zenbatekoaren arabera lehenesteko, obraren aurrekontua soilik hartuko da kontuan, 4.6 artikuluan deskribatutako jarduketei dagokien kostuaren batura egin gabe.

7.3 Jarduketa orokorren kostuak, zeinak 4.6 artikuluan aipatzen baitira, eskatutako dirulaguntzaren xede diren inbertsio edo jarduketekin lotuta daude eta, beraz, haien emaitzaren arabera izango da aukeratzeko edo lehentasuna emateko hurrenkera.

Talde edo azpitalderen batean kreditu soberakina egonez gero, beste batzuetara bideratu ahal da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den deialdi bakoitzean.

8. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta munta

8.1 Laguntzak zuzeneko dirulaguntzak izango dira, aukera daitekeen inbertsioaren edo jarduketaren aurrekontu diruz laguntzeko moduko onetsiarekiko ehunekoetan. Ondorengo ataletan ageri dira ehuneko horiek eta onartutako inbertsio edo jarduketa osoaren balioaren ehuneko ehunekoak izatera iritsi ahal dira dirulaguntzak.

8.2 Diruz lagundu daitekeen inbertsio mota bakoitzerako laguntzaren ehunekoa honako hau izango da, deialdian beste bat zehazten ez bada:

- Bide berriak eraikitzea; ehuneko 80.
- Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea: ehuneko 65.
- Lehendik dauden bideak konpontzea eta hobetzea: ehuneko 65.
- Euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako jarduketa bereziak: ehuneko 75.
- Beste inbertsio batzuk: ehuneko 80.
- 4.6 artikuluan aipatzen diren jarduera orokorren kostuek kostuaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso ahal izango dute.

9. artikulua. Kontratazioa

9.1 Diruz lagundutako jarduketa gauzatzeko behar den kontratazioa sektore publikoko kontratazioaren arloan aplikatzeko den araudiaren mende jarri beharko dute laguntzaren erakunde onuradunek, eta, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren mende.

Araudi horren arabera kontratu txikia erabili behar denean, kontratuaren balio zenbatetsia 40.000,00 eurotik beherakoa denean bakarrik jo ahal izango da horretara obra kontratuen kasuan, edo 15.000,00 eurotik beherakoa denean hornidura edo zerbitzu kontratuen kasuan, BEZa aparte, eta, betiere, indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dira.

9.2 Kontratazio espediente osoa eta finantza plana unitate kudeatzaileari aurkeztuko zaizkio, obrak eta/edo inbertsioak hasi baino lehen.

10. artikulua. Deialdia

Deialdi bakoitzerako honako hauek zehaztuko dira:

- Aurkezteko epea eta modua.
- Laguntzaren deialdiaren xede diren inbertsio talde edo azpitaldeak. 4.4 motako inbertsiorako deialdia egiten bada (euri jasak eta fenomeno naturalak), lurraldeko zer eremuri eragiten dion zehaztuko da.
- Zein epetatik aurrera onartzen den inbertsioak egitea.
- Deialdira bideratutako aurrekontu kreditua, hala badagokio, inbertsio talde eta/edo azpitaldeen arabera banaketa adierazita, eta haietako bakoitzerako kreditu erreserba espezifikoak ezarri ahal izango dira.

4.6 artikuluan aipatutako inbertsiorako ez da kreditu zenbateko espezifikorik bideratuko; aitzitik, lotutako inbertsio motari esleitutako kredituaren kontura ebatziko da.

– Inbertsio eta/edo erakunde mota bakoitzari diruz lagundu dakioken aurrekontuaren gehieneko zenbatekoa, baita erakunde bakoitzak eska dezakeen gehieneko bide kopurua ere.

– Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren gutxieneko zenbatekoa, zeinaren azpitik ez baitaia erantzungo eskaerari.

Kasuan kasuko deialdiak aldaketak zehaztu, garatu, egokitu eta, hala badagokio, ezarri ahal izango ditu oinarri arautzaile hauetan jasotako irizpideen aplikazioan, honako alderdi hauei dagokienez:

– Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria.

– Talde eta/edo azpitalde bakoitzari aplikatu beharreko puntuazioa eta lehentasun irizpideak.

– Inbertsio talde eta/edo azpitalde bakoitzari aplikatu beharreko ehunekoak dirulaguntza kalkulatzeko.

Nolanahi ere, aldaketa horiek oinarri arautzaile hauen funtsezko edukia errespetatu beharko dute.

11. artikulua. Eskaerak aurkeztea

11.1 Laguntza eskaerak telematikoki aurkeztuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren izapide espezifikoaren bidez.

11.2 Eskaeran, bidearen edo bideen izena eta kodearen zenbakia adieraziko dira, baita haie-tan egin nahi denaren deskribapen labur bat ere; beste inbertsio batzuk” taldearen kasuan, egingo den inbertsioaren identifikazioa eta lehentasuna; eta, obra edo instalazio bat kanpoan bada, haren kokapena ere adieraziko da.

11.3 Laguntza eskaerarekin batera ondorengo dokumentazio hau aurkeztu beharko da, salbu eta deialdian beste gauza bat zehazten bada:

– Erakunde titularraren erabakiaren ziurtagiria, zeinaren bidez onesten baita laguntza eskatzea eta beharrezkoak diren lursailak edo kokapena erabilgarri daudela, hala badagokio.

Bideetako inbertsioen kasuan, erakunde eskatzaileak, nahi izanez gero, aurrekontu edo proiektu bat aurkez dezake, eta bi kasuetan obra unitateak, neurketa eta prezioa adierazi beharko ditu, eta kostua eta BEZa bereizita. Aitzitik, erakundeak bideen inbertsioari buruzko aurrekontua Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek egitea nahi badu, eskaeran adierazi beharko du.

– Beste inbertsio batzuen kasuan, proiektua edo aurrekontua, obra unitateak, neurketa eta prezioa adierazita bi kasuetan, eta kostua eta BEZa bereizita.

– Interesgarritzat jotzen den beste edozein dokumentazio.

11.4 Eskaeretan akatsak badaude edo osorik ez badaude, instrukzio organoak haien konpontzeko eskatuko die interesdunei, hala badagokio. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

11.5 Eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak berriaz onartuko ditu laguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

11.6 Inbertsioa edo jarduketa hasi ahal izango da kasuan kasuko laguntza eskaera deialdian ezarritako epean aurkeztu ondoren, eta kudeaketaren ardura duen agintaritzak hura hasi ez dela egiaztatu ondoren.

11.7 Inbertsioa edo jarduketa hondamendi naturalek hondatutako bideak konpontzeko pre-sazko neurriak direnean, haietatik eratorritako gastuak eta inbertsio edo jarduketa horiekin lotutako agirien gastuak hondamendi naturala gertatu den datatik aurrera egin ahalko dira,

bidearen jabea den erakundeak unitate kudeatzaileari jakinarazi ondoren eta kudeatzeko ardua duen agintaritzaren txostena eskuratu ondoren. Onesten den lehenengo deialdian aurkeztu beharko da eskaera.

11.8 Obrak dirulaguntza eman aurretik hasten badira, erakunde eskatzailea ez da arlo honetan indarrean dagoen arautegiari jarraituz kontrataziorako prozedura betetzetik salbuetsita egongo eta ez du esan nahiko ebazpena aldekoa izango denik. Beraz, ebazpena kontrakoa bada, erakunde kontratatzailearen konturakoak izango dira egindako gastu guztiak.

11.9 Beharrezkotzat jotzen diren deialdiak onetsi ahal izango dira urtero, baldin eta aurrekontu kreditua badago.

12. artikulua. Izapidetzea

12.1 Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, gaiaren arabera izapideak egiteko ardua duen zerbitzuak izapidetuko ditu espedienteak, instrukzio organo gisa, zeinak eskaerak aztertuko baititu, erakunde onuradun izateko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eta diruz lagundu daitekeen aurrekontua eta dagokion dirulaguntza zehazteko, eta kide anitzeko organoak baloratzeko prest geratuko dira.

Eskatutako inbertsio guztiak 7. artikuluan ezarritakoaren arabera puntuatu eta ordenatu ondoren, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak egin eta/edo aztertuko dira, lehentasun ordenako lehenengoetatik hasita. Inbertsio motaren talde eta/edo azpitalde bakoitzaren aurrekontu kreditua agortzen denean, ez da beharrezkoa izango gainerako inbertsioak kudeatzen jarraitzea.

12.2 Espedientearen instrukzio garaian, laguntza kudeatzen duen unitateak ebazpen proposamena egiteko behar dituen informazio eta agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

12.3. Foru dekretu honetan ezarritako laguntzaren emakida norgehiagoka bidez izapidetuko da, deialdi bakoitzean ezarritako hautapen irizpideen arabera.

Espediente guztiei laguntza emateko aurrekontu kreditu nahikorik ez badago, deialdian ezarritako lehentasunaren arabera jokatu da.

12.4 Deialdi honen bidez, dirulaguntza eman ahal izango zaie gastua, partez edo osorik, dirulaguntza emateko ebazpena eman ondorengo ekitaldiei egozteko modukoa duten obrei, baldin eta aurrekontu krediturik badago.

Deialdian emango den gehieneko zenbatekoa adierazi beharko da, guztira, urterokoetan banatuta, emango diren dirulaguntzen ondoriozko gastua egitea aurreikusten den unea kontuan hartuta.

12.5 Unitate kudeatzaileak ebatzi beharko ditu foru dekretu honetan jasota ez dauden alderdi tekniko guztiak.

12.6 Behin inbertsioak aztertuta, kide anitzeko balorazio organoak ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena emango du, 5. artikuluan ezarritako lehentasunak aplikatuz eta erabili daitekeen aurrekontua kontuan hartuz. Hala badagokio, inbertsio bakoitza ezesteko arrazoiak zehaztuko ditu, eta baietsitako espedienteen baldintzak betetzen direla jasoko du.

12.7 Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoa ondoren adierazten diren pertsonak edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Ataleko teknikari bat, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horri atxikia.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

13. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

13.1. Kide anitzeko balorazio organoak proposatuta, espedienteak indarreko araudiaren arabera eskumena daukan foru organoak ebatziko ditu. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsu horretarako arauari jarraikiz. Gainera, aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

13.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 23.5 artikuluari jarraituz.

13.3 Dirulaguntzak emateko ebazpenetan, diruz lagundutako inbertsioa, diruz lagundu daitekeen aurrekontua eta dirulaguntzaren ehunekoak eta zenbatekoak ezarriko dira espediente bakoitzeko. Ebazpena negatiboa izenez gero, arrazoia zehaztu beharko da.

13.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: dirulaguntzaren xede den bidea eta/edo inbertsioa, diruz lagundu daitekeen aurrekontua, dirulaguntzaren ehunekoak, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, urtea edo urteak, ordainketa eskaera gauzatzeko eta aurkezteko epea, eta, hala badagokio, laguntzaren ebazpen negatiboa eta arrazoia.

Horrez gainera, ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren onuradunak bete beharreko konpromisoak adieraziko dira.

14. artikulua. Laguntzak ordaintzea

14.1. Diruz lagundutako inbertsioak gauzatu ondoren eta honako agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko zaizkie dirulaguntzak erakunde onuradunei:

– Laguntza ordaintzeko eskaera Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren izapide espezifikoaren bidez egingo da.

– Hala badagokio, kobrantza lagatzeko agiria beterik, erakundeari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kontratista adjudikaziodunari lagatzekoa.

– Diruz lagundutako jarduera bera finantzatu duten diru sarrerak edo dirulaguntzak jaso ez dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena eta, bestela, aldi berean jasotako beste diru sarrera batzuen zerranda xehakaturia, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Hala badagokio, egindako obraren ziurtagiria, obrak kontratatu zituen organoak onetsia eta obra zuzendaritzak emana. Kontratu txikien kasuan, nahikoa izango da onartutako fakturan benetan gauzaturako unitateen zerranda balioetsia jasotzea edo unitate horiek kontratazio aurrekontuan zehaztea.

Egindako gastuen justifikazioaren kasuan, faktura eta ordainagiria aurkeztuta (salbu eta dekretu honen 13.2 puntuan adierazitako aurrerakinen kasuan). Faktura elektronikoa izan ahalikoa da, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko zerga eremuan faktura hori onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

1.000,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez egiaztatu beharko dira, Iruzuraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

14.2 Unitate kudeatzaileak administrazio ziurtagiria eman ondoren aginduko da laguntza ordaintzeko.

14.3 Partezko ziurtagirien gaineko ordainketak egin ahal izango dira, eta onuradunak nahitaez amaitu beharko du diruz lagundutako obra. Ordainketa horiek egiteko, beharrezkoa izango da egindako obraren bolumena egiaztatzen duen ziurtapen teknikoa izatea, kasuan kasuko faktura aurkeztea eta faktura osoa hurrengo apartatueta adierazitako moduan ordaindu izana egiaztatzea, salbu eta kobratzeko eskubidea hirugarren bati laga bazaio; kasu horretan, ez da beharrezkoa izango osorik ordaindu dela egiaztatzea, ezpada diruz lagundu ez den zatia soilik.

14.4 Konpromiso krediturik badago eta aurrekontuko baldintzek hala eskatzen badute, foru dekretu honetan jasota dauden laguntzak zatitu ahal izango dira, gehienez hiru urtetan ordaintzeko.

14.5 Laguntzaren baten ordainketa urte batean baino gehiagotan zatitu bada, aurreikusitako urteetan ordainduko da, laguntza gordailutu zen aurrekontuen pentzura. Nolanahi ere, azken urtesaria edo ziurtapena ordaintzeko, inbertsioak guztiz gauzatura egon beharko du.

14.6 Erakunde onuradunak bere kobrantza eskubidea laga ahal izango dio kontratista adjudikaziodunari, dagokion laguntzaren zenbatekoa zuzenean jaso dezan.

14.7 Ziurtapenak eta fakturak dirulaguntza jasotzeko eskaera eta obrak hasi ez izanaren akta aurkeztu ondoren aurkeztu beharko dira, jarduketak hondamendi naturalek suntsitutako bideak konpontzeko presazko neurria direnean izan ezik. Kasu horretan, jarduketan data egitateak gertatu ostekoa izan beharko da.

14.8. Obren onarpena, amaierako ziurtapena eta likidazioa egiten direnean, baldin eta obra txikien kontratuek bestelakoak badira, unitate kudeatzaileko teknikariak bertan egongo dira, eta oniritzia emango dute. Benetan zein obra egin den egiaztatuko dute, emandako dirulaguntzaren ordainketari begira.

14.9. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki doituko zaio benetan egindako eta behar bezala justifikatutako gastuari, eta proportzio berean gutxituko da gastu hori bada dirulaguntza emateko ebazpenean onetsitako aurrekontu diruz laguntzeko modukoa baino txikiagoa.

14.10 Adjudikazioaren prezioa jaisten bada, beherantz egokitu ahalko da emandako dirulaguntza. Ehuneko 10eko kreditu erreserba onartu ahalko da gehienez ere adjudikazioaren zenbatekoarekiko, eta ezingo du gaingitu dirulaguntzaren hasierako zenbatekoa, salbu eta ehuneko 10eko zenbatekoan baino gehiagoan aldatutako edo berritutako proiektuen kasuan, halakoetan Nekazaritza Sailari eskatu beharko zaio eta hark, egokitzat jotzen badu, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa areagotu ahalko du horretarako krediturik badago.

15. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

Foru dekretu honetan jasotako dirulaguntzen erakunde onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

15.1 Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaion xede zehatzerako baliatzea, esleipen ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Laguntzaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamabost egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

15.2. Toki erakundearen organo eskudunak onespene ematea egin behar diren obra guztien finantza planari. Finantzaketa planean, hala badagokio, ziurtagiri edo ordainketa bakoitza kobratzeko eskubideak kontratista esleipendunei edo hornitzaileei lagatzeko asmoa adierazi ahal izango da.

Finantza plana eta kontratazioari buruzko dokumentazioa kudeaketa unitateari aurkeztuko zaizkio, obrak hasi baino lehen.

15.3 Behar bezala egiaztatu diren ezinbesteko kausak egon ezean, inbertsioak erabiltzeko eta funtzionatzeko baldintza onetan mantentzea zazpi urtez gutxienez, dirulaguntza ematen denetik kontatzen hasita.

15.4. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, Kontuen Euskal Epaitegiari eta beste erakunde eskudun batzuei ematea beren eginkizunak gauzatzean eskatzen duten informazioa foru dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz.

15.5 Administrazioan zein tokian bertan kontrolak egiten laguntzea edozein agintaritzari, honako haiek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, lagundutako inbertsioak edo jarduketak egoki gauzatzen ari direla eta ondoren konpromisoei eusten zaiela.

15.6 Jasotako dirulaguntza zertan erabili den egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, haiek guztiak egiaztatu eta kontrolatu baitaitezke.

15.7 Erakundearen bere teknikariak jartzen baditu obrak zuzentzen, horren berri ematea unitate kudeatzaileari, eta zuinketa egiaztatzeko edo obrak hasteko akta zein egunetan egingo den jakinaraztea, hala badagokio.

15.8 Bidegabe eskuratutako aurrerakinak edo laguntzak itzultzea, agintari eskudunek hala aginduta; baita kasuan kasuko interesa ere, hala badagokio.

15.9 Beharrezkoak diren administrazio baimenak izapidetzea eta lortzea (URA, Errepide Zerbitzua, etab.).

15.10 Hala badagokio, obrak behar bezala gauzatzeko behar diren lursailak izatea.

15.11 Laguntza ordaintzeko eskaeran adieraztea ea inbertsio bererako beste erakunde batzuen laguntzarik eskatu edo jaso duen. Haiek jasoz gero, zenbatekoa eta eman zituen erakundearen izena jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

16. artikulua. Betekizunak ez betetzea

16.1 Erakunde onuradunak foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratzuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesei dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

16.2 Inbertsio diruz lagunduak dirulaguntzak emateko ebazpenean ezarritako epean gauzatu ezean, edo onetsitako inbertsioaren zenbatekoaren ehuneko 75 baino gutxiago baizik gauzatzen ez bada Nekazaritza Sailak ontzat emandako justifikaziorik gabe, galdu egingo da dirulaguntzarako eskubidea. Horrez gainera, ezingo da eskatu laguntzarik inbertsio horietarako beretarako lan edo jardun hori gauzatu behar zen deialdiaren osteko bi deialdietan.

16.3 Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

16.4 Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo partez itzuliko den, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta erakunde onuradunari entzun ondoren.

16.5 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

17. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak hura aplikatzeko onetsi zuen Erregelamenduan eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko arau aplikagarrietan xedatutakoaren mende egongo dira. Horiek horrela, behartuta egongo dira Ogasun, Finantza

eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak, Euskal Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten organoek eskatzen dizkieten agiriak aurkeztera, halaxe xedatzen baitu aipatutako foru arauak 8 i) artikuluan.

18. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

18.1 Foru dekretu honetan jasota dauden laguntzak bateragarriak dira Arabako Foru Aldundiak, beste administrazio publiko batzuek eta erakunde pribatuek ezartzen dituzten laguntzekin.

18.2. Laguntza bateragarri guztien batura ezin da izan inbertsoaren ehuneko ehuna baino gehiago. Horri dagokionez uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 34. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

19. artikulua. Laguntzak berraztertzea

Laguntzen xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

20. artikulua. Finantzaketa

20.1. Laguntza hauetarako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira, eta laguntza nazionaltzat joko dira.

20.2 Deialdia ebatzi ondoren, erakunde onuradunek uko egiteagatik edo beste edozein arrazoiengatik kreditua sortzen bada, betekizunak betetzen dituen eta kreditu faltarengatik onuradun izan ez den zerrendako hurrengo inbertsioari edo jarduketari esleituko zaio, beste deialdi bat egin behar izan gabe, lehenago ezarri diren hautaketa irizpideak aplikatzearen ondoriozko ordenari jarraituz. Eskaera guztiei erantzunda ere kreditu erabilgarria badago, sailaren esku geratuko da.